

Euskara, erabilia denean

Euskaldunon Egunkaria, 1991-03-19: 2.

Euskara erabiltzea ez da beti ona.

Nik uste nuen geure hizkuntza ezagutzea, ez dakienari erakustea, eta gero guztiok erabiltzea, berez ona zela. Bide honetatik etorri daitekeela Euskal Herriaren garatzea.

Uste ustela, nonbait.

Nire lagun abertzale batek esan dit atzo, hori dena euskararen kalterako ere izan daitekeela.

Hara!

Bai, euskara erabilia, maneiatura, izan daitekeelako.

Hara!, berri. Etortzen bait zaizkit burura filosofia bera adierazten duten esaera batzuk: kontuz limosnarekin, behartsuari lagundu beharrean alfer bat fabrikatzen ari zara eta; ez zaite errukior izan, esker txarra besterik ez duzu jasoko; ezin duzu beti egia esan, inoxente!. "Mundu honetan, badakizu, eta hau erdaraz esan zidan, esaldiari indar gehiago emateko, seguraski, 'Paso de buey, mirada de lobo y diente de lobo'".

Euskara maneiatura izan daiteke beraz, bere kalterako.

Eta erdara, aspaldi geure artean maneiutzen diguten, eta dugun, erdara? Badirudi euskara bakarra dela erabili, maneiatu, daitekeen hizkuntza.

Gizaixoa.